

ZENBAT BURU

Jose Mari Bastida

ERREPORTAIA

Gelatxotarrak, trikitilarien belaunaldi historikoa

GEHIGARRIA

Kale-zulotik baserri-
ra

KIROLA

97/98 denboraldiko
C. D. Elgoibar elkar-
teko diru kontuak

KULTURA

Ongarriren aire
libreko zinea prest

BARREN

1998ko uztailaren 3a
V. urtea - 243. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Gelatxotarrak
Mer ezitako ome-
naldia

“Nik bizi izandako erromerixarik ez da berriz bueltauko” Pedro Sodupe *Gelatxo*

GARATE

Jantzidenda

Errosario kaleko 12an
taila solteak erdi prezioan.
ASTELEHENETIK AURRERA

alkandorak
2.900 pta.

kamisetak
1.900 pta.

poltsak
1.975 pta.

prakak
3.350 pta.

kazadorak
6.900 pta.

soinekoak
3.400 pta.



San Bartolome, 13 - Tel. 94374 11 29 / Errosario, 12



JOSE MARI BASTIDA

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Moroak gu?

Nere abizena ez da Zarrandikoetxea, Iturri, Gorriaran, Uribeganekoa... bezain jatorra. Ez daramat txapelik, ez ditut ehun kilo pisatzen (nahi ere ez), ez naiz Clemente bezain isekari eta malkoen malkoz ez zait ardoa gustatzen.

“- ¿Tu no pareces vasco, eh?”

Askotan entzun behar izan ditut honako edo pareko esaldiak. Ez naiz ez Txomin de Regato, ez ‘Los Cinco Bilbainos’eko kidea edo Kortezubin antolatzen diren lehiaketetan partaide, ez, eskerrik asko. Francoren garaiko argazki horiek (Florida Pensilekoak kasu) zaharkitzen ari dira.

Valentziara etorri nintzenetik, (Murtzia aldean ere bai), Bastida abizena daukaten pertsona mordoa ezagutu ditut. José Aparicio Pérezek (Valentziako Real Academia de Culturako lehendakaria), nik ezer esan gabe, eta Bastida abizena nuela jakitean, zera jakinarazi zidan:

“- ¡Hombre! Tú provienes del poblado Ibero de Moixet (erdaraz Mojente deitzen den Valentzia alboko herri bat), que se llama así, Bastida.”

Nik, noski, neure jatorria ixildu (aurrean nuen pertsonaren errespetuarengatik), baina barrutik irribartsu. Hona hemen, handik gutxira euskara Iberoak erabiltzen zuten hiz-

kuntzarekin lotura handia edo hizkuntza bera direla agerian jarri duen hemengo ikertzaile batek argitaratu duen lan bat. Badirudi, Marokon ere euskararekin antzekotasunik aurkitu dituela. Lana motel xamarra izan arren, Espainiako komunikabide askok artikulu eta erreportajeak argitaratzeari ekin zioten titular handitan eta nahasbideari bide emanaz.

Hau dela eta zenbait galdera bururutzen zaizkit: gure jatorriaz ikertzerakoan medite-


raneorantz jo beharko genuke?, ez gara, bada, valentziarrak izango? Marokon aurkitu diren frogengatik ez da garbi nabaritzen moroak gara? Errege-erregina Katolikoek Espainiatik bota zituztenak gure ahaide urrunak al ziren? (Hortxe beharbada estatu zentralarekin ditugun istiluen sustraia).

Euskadin Jaimak baserriak bihurtu dira diferentzia nabarmenarekin (han harem-ak, hemen, berriz, emakumeak jaun eta jabe). Txapela turbantearen kopia eskasa iruditzen zait eta Jomeiniren bat ere ez zaigu falta. Hori bai, erlijio kontuan...

Ez! Inolaz ere ez Joxe Mari, zion Don Pedro apaizak, Jakinkoak gaur egun Euskal Herria deitzen den lurrean Cromagnon gizona jarri zuen eta horra hor euskaldunen jatorria. Hau da arrazoi bakarra... a! barkatu.

“Marokon aurkitu diren frogengatik ez da garbi nabaritzen moroak gara? Errege-erregina Katolikoek Espainiatik bota zituztenak gure ahaide urrunak al ziren?”

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

ARGITARATZAILEA

Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA

Elgoibarko Udala

ZUZENDARIA

Ainhoa Lodoso

KAZETARIAK

Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro

PUBLIZITATEA

Miren Moreno

MAKETATZAILEA

Mikel Cornejo

ADMINISTRAZIOA

Amaitz Martin

GERENTZIA

Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK

Irati Agirreazaldegia,

Ana Artetxe, Jose Mari Bastida,

Mari Karmen Elorza,

Maidar Elustondo, Jon Eugi,

Koldo Galdona, Aintzane Garate,

Jon Garate, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Alberto Iriondo,

Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga,

Nieves Loiola, Asier Orbea,

Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo,

Jon Suarez, Anjel Ugarteburu,

Iban Urizar, Miren Vallejo.

BANAKETA ARDURADUNA

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA

Gertu Koop. E.

TIRADA

4.000 ale

LEGE GORDAILUA

SS-1.038/92

ISSN

1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlaritzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



Elgoibarko Izarraren iparra dela-eta

BARREN astekariko 242. zenbakian sei herritarrek, bazkide bat tartean, iparra galdu izana leporatu zioten Elgoibarko Izarrari. Honen aurrean zera adierazi nahi dizuegu bazkide eta herritarroei:

Elgoibarko Izarra 1963an sortu zen. Sasoi hartan euskarak eta euskal kulturak Elgoibarren bizi zuten egoera penagarria ikusirik, gaztelaniaren laino arteetik euskararen izarrak bistararazteko ahalegin kolektiboa jarri zuten martxan hiru herritarrek. Eta inon idatzita azaltzen ez bada ere, (gogoratu frankismoak debekatuta zeukala euskararen aldeko edozein mugimendu), helburua edo iparra Elgoibarren euskara eta euskal kultura indartzea eta zabaltzea zen. Beraz, Elgoibarko Izarraren iparra 1963 urtean erabaki zuten elgoibartarrek.

1991an Elgoibarko Izarraren bigarren etapari ekin genionetik, behin baino gehiagotan eztabaidatu izan dugu Elkarteak gizarteko bestelako gaietan ere 'busti' behar duen ala ez. Baina erabakia beti bera izan da: Elgoibarko Izarrak ez duela inolako iritzirik edo sinadurarik eman behar euskararekin lotura zuzena ez duten gaien inguruan. Erabaki honek bi arrazoi nagusi ditu:

- Honek, kasurik gehienetan, bazkideon arteko haserrea eta zatiketa ekarriko lukeela.

- Elgoibarko Izarra ez dela euskararekin lotura ez duten gaiak aztertu eta eztabaidatzeko gunea, besteak beste, ez zelako horretarako sortu.

Lehen ere izan ditugu hainbat elkarte eta erakunderen eskariak eta, aipatu berri ditugun bi arrazoiak kontuan hartuta, beti erantzun bera eman diegu. Oraingo eskariari ere, *Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformaren* eskariari alegia, orain arteko irizpideak mantenduz eta errespetatuz erantzun diegu.

Beraz, bistan da ez dagoela Elgoibarko Izarrak iparra galdu duela esateko arrazoi objektiborik.

Besterik gabe, une hau aprobetxatu nahi dugu bazkide eta herritar guztioi agurtzeko.

Zuen esanetara,

**Elgoibarko Izarrako
Zuzendaritza Batzordea**

Herritauzo txikiak ez omen errentagarri

Bat-batean, eta inongo azalpenik gabe (edota hobeto esateko, "por decretazo"), suertatu gara Altzolako biztanleak aurrerantzean trena hartzeko eskubiderik izango ez genuelako notiziarekin.

Denok dakigu, jakin ere, bizitzea tokatu zaigun abiadurazko mundu honetan ahalguztidunek erabiltzen duten parametrorik inportanteena errentagarritasuna dela; nonbait lehenbailehen iristea nahi dute trena Donostiara, geltoki txikietan igo daitezkeen bizpahiru pertsona gorabehera.

Honen aurrean honako hau jakinarazi eta eskatuko nieke herritarrei eta bereziki agintariei:

- Denon artean egin behar dugula bizi nahi dugun mundua eta ingurugiroa. Baina goazen bidetik jarraituz, herri eta auzo txikietako bizitza alde batera utziz, hauek pixkanaka-pixkanaka hustu egingo zaizkigu. Denok bukatuko dugu herri handietan bizi izaten eta orain arte jendez gainezka genituen herriskak, edota asteburuak pasatzeko, edota afaltzera joateko, edo museo-etxe bezala, ... era horrelako aisialdi ihardueretarako geratuko zaizkigu. Herriska hutsak, fikziozkoak, benetako bizitarik gabekoak, fantasmak, edozein kasutan ere.

- Erakundeetatik indartu nahi zuten bidea zela uste nuen garraio publikoa leku guztietan bultzatzearena. Usteak ustel, ordea, askotxotan bezala.

- Elgoibartar guztiak gonbidatu nahi nituzke "decretazo" honi aurre egiteko sortu den sinadura-bilketan parte-hartzera, bai Altzolako bi tabernetan dituzuen orrietan, bai Elgoibarren aurkituko dituzuenetan sinadura emanaz.

- Era berean, agintariei beren esku dagoena eta herritarrek eskatzen dutena egiten saia daitezela.

Jesus Mari Makazaga

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.**

B AI, E S A N ?



Paco Egea

Ekonomia eta Justizia
Sailburu ohia

Aste honetako deia komunikabideetan bolo-bolo dabilen gai baten inguruan egin dugu. PSE-EE alderdiak Eusko Jaurlaritzako hirukotik alde egitea erabaki du. Erabaki honek Elgoibarren bizi den **Paco Egea Ekonomia eta Justizia Sailburuaren dimisioa** ekarri du. Ardantza lehendakariari dimisioa aurkeztu ostean (asteazkenean) egon ginen berarekin.

- **Gobernutik alde egitearen ala geratzaren aldekoa zinen?** - Gauzak gertatu diren bezala gertatuta, ez apurtzearen aldekoa, argi eta garbi. Gipuzkoako PSE-EEekin bat nentorren, Egigurenen tesiekin erabat ados. Baliorik gabeko keinua izan da. Batetik, unea ez da egokia izan, gainera, parlamentuan proiektu bat aurkezten ari nintzenean hartu dute erabakia. Bigarrenik, Ardantzak 14 urte eman ditu Jaurlaritzan eta ez zait iruditzen bere legegaldia horrela amaitzerik merezi duenik. Eta hirugarrenik, modestia faltsurik gabe esan dezaket, ez dudala sekula izan nire kargua uzteko arazorik. Ez dut jendeak pentsatzerik nahi kontu honengatik minduta nagoenik edo haserre nagoenik, ez. Lasai nago, oso. Begirale hutsa izan naiz kontu honetan. Okerreko erabakia izan dela uste dut, besterik ez.

- **Zer esan dizu Ardantz lehendakariak?** - Ospitaletik irten naizenean komunikabideetan ere azaldu dut Ardantza zoragarri portatu dela nirekin. Esan didana barruraino sartu zait. Geratzeko aukera banuela ziurtatzeko moduan nago, izan ere gustura jarraituko nukeen, baina bidegurutze honetan ez dut aukerarik izan. Independentea naizen arren alderdi batek jarri ninduen karguan eta koherentziagatik dimititu dut.

- **Hain larria al da EAJ-PNVk eta HBk elkarrekin berba egitea edo Jaurlaritzako bozketa batean bat etortzea?** - Ez naiz klabe politikoetan aditua baina ez diot kontu honi horrenbesteko grabedadea ikusten, biztanleria konfunditzea besterik ez da lortu. PNVk beti izan du jarrera bera Konstituzioarekiko eta aurrerantzean ere berdin jarraituko du. Horrelako krisi bat sortzeko ez zait nahikoa arrazoi iruditzen. PNV eta PSEren arteko elkarlanean etapa bat amaitzen da, kohesio handiko etapa progresista; fruituak eman dituena, gainera. Erabaki honen ostean ikusi egin beharko da zein jarrera hartzen duten inplikaturako alderdiek urriaren 26ko hauteskundeetan ostean.

- **Zer egin behar du orain Paco Egeak?** - Bi hilabeteko oporrak hartu eta nire familiarekin eta gogoko ditudan gauzeekin disfrutatu. Irakurketa ugari nituen baztertuta eta horiei egingo diet kolpe. Aurrerantzean enpresa pribatuan lan egiteko erabakia hartu dut.



◆ **Herri Institutuko hiru mutiko etorri dira ikastetxeko atea itxi egin dituztela eta ondorioz, frontoia eta futbito zelaia ezin dituztela erabili salatzeko.** “Duela hilabete inguru norbaitek jantokiko kristal bat apurtu zuen eta hori dela-eta ikastetxeko atea istea erabaki zuten, nahiz eta ordura arte egun osoz egoten ziren zabalik. Gu pilotan ibiltzera joaten gara, baina orain ezin dugu ikastetxea itxi egin dutelako. Esan digutenez, kristala apurtu zuenak aitortu arte ez dituzte atea irekiko. Badakigu erruduna ez dela agertuko. **Bitartean errugabeak ari gara ordaintzen kaltea**”.

◆ **San Antolineko industrialdean lan egiten duen Debako gizon batek deitu digu tren apeaderoak kentzen ari direla salatzeko.** “Lanetik irteetan **San Antolineko apeaderoan trena hartzen nuen. Hura kendu egin zuten eta beraz, aurrerantzean Altzolara joan eta bertan trena hartzeko erabakia hartu nuen. Baina orain Altzolako geltokia ere kendu egin nahi dute.** Zer gertatzen da trena erabiltzen dugunokin? Ez al du Eusko Trenbideak-ek zerbitzu publikoa eskaini behar? Eta Udala zer? Ez al du presioa egiteko asmorik?”.

ESKERTZA

1998ko ekainaren 21ean, 70 urte zituela hil zen ANTONIA GALDOS BASKARANen sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.




Gelatxotarrak:

Trikitiari

lotutako familia

*Tente, ezkerretik
Madarixa Txikixa,
Manuel Sodupe eta Rafael,
Madarixa Zaharrekoa.*



Igandean, uztailak 5, omenaldia egingo zaie Manuel, Lorenzo eta Pedro Sodupe Gelatxotarrei.

Manuel Sodupe San Lorentzoko Gelatxo baserrian jaio zen eta hortik jaso zuen ezizena. Trikitia jotzen maisua izan genuen.

Honen seme zaharrena zenak, Lorenzok, makina bat plaza pasa zituen soinuarekin eta Pedrok gaur egun oraindik ere hainbat eta hainbat dantzaldi girotzen ditu bere musikarekin. Ongi

Manuel Sodupe Zubizarreta (1888-1953) Elgoibarko San Lorentzo auzoko Gelatxo baserrian jaio zen, hortik datorkiolarik bere ezizena. Baserritarra ofizioz, bere garaiko trikitilari profesional onenatarikoa ere izan zen. Manuel bizi izan zen garaian trikitilari asko eta asko zegoen baina bera zen leku gehienetan jo

izan zuena. Trikitilari gehienek dozena bat pieza bakarrik zekizkiten jotzen eta Gelatxok, aldiz, erreperitorio handi eta zabala zuen. Bizkaiko soinu-jole zaharrek ondotoxogoratzten dute nola joaten ziren batera eta bestera Gelatxoren erreperitorioa "espiatzera".

Manueli bere emazte Juliana Esnaolak (Elgoibarko Muxillo baserrian

jaioa 1892an) laguntzen zion panderoarekin. Hala ere, Julianak ez ezik, Manuel Esnaola koinatuak eta Pantxika Zubizarreta 'Markonesiak' (Aldapako Juli zubizarreta panderojole ezagunaren ahizpa) ere sarri lagundu izan zioten panderoarekin.

Bere kasa ikasitakoa

Manuelek bere kontura ikasi zuen soinua jotzen. 15-16 urte inguru zituen lehenengo aldiz hartu zuenean eskuarteetan ilara bateko soinua. Urola aldeko trikitilari zaharren hitzetan, Gelatxok sartu zuen Gipuzkoan Bizkaiko trikitixa, kopladun dantza, alegia. Piezak ere konposatzen zituen eta gaur egun entzuten diren hainbat porrusalda berak sortuak edo bizkaitar zein aragoarrei entzun eta moldatuak dira. Izugarri gustatzen zitzaizkion pasodobleak, tangoak, mazurkak eta polkak hartu eta haiek soinurako moldatuz giro alai sortzea.

Trikitixa munduan berritzailea

Bi ilarako soinua hartzean, ilara bakarrekoarekin erabilitako teknika



Lorenzo Sodupe soinua jotzen Eibariko Lazpitatarrekin 1946ko abenduan.

bera erabiltzen zuen, barruko ilara erabiliz batez ere. Hori dela eta, oso estilo berezia zeukan.

Martzelino Larrinaga soinu-gintzan eta Manuel Sodupe soinu-jotzen trikitixa munduko berritzaileak izan ziren. Mendi erromerietan Gelatxok ilara bakarreko diatonikoa joatzen izan zuen arrakastaren ondorioz, soinu-fabrikak eta saltzaileak han eta hemen sortu ziren.

Manuel Sodupe aparteko dantzaria ere bazen. Auzokide asko, Gelatxo nora, haiek ere hara joaten omen ziren eta kaletarrak, igande arratsaldeetan Gelatxorengana joaten ziren dantzak ikastera.

Gelatxo soinu-jole bikaina eta gizon handia zen, umila. Arroako Mario Serrano soinu-jolearen hitzetan, "ez hioan igarriko zertarako zegoen ere, parrex-parrex beti. Ez huen Sakabi edo Auntxa edo gu bezalakoak, pixka bat txispatu eta bromarako jaritzen ginenak. Karakter ona zian".

Desprestijioa

Garai hartan, gainera, soinu-joleak ondo eta gaizki ikusiak zeuden aldi berean. Alde batetik bizimodu librea zuten, "libertinoa", parrandaz parranda ibiltzen zirenak. Ezkondu eta gero askok laga egiten zioten soinu-jotzeari. Garai hartan, familian bertsolari edo trikitilari bat edukitzea desprestijioa omen zen. Beste aldetik, ordea, trikitia festa zen, dantza debekatua, gazteen arteko topagune, askatasun seinale eta gizarte gogor hartan ezinbesteko eskapea. Beraz, giro honetan oso estimatuak ziren trikitilariak.

Manuel Sodupe gizon eta soinu-jole estimatua izan zen. Bizitzan zehar hiru omenaldi jaso zituen: Madarixan 1935ean, Elgoibarren 1947an eta Azpeitian 1947an. Diskarik ere grabatu izan zuen, besteak beste "Trikitixa de Elgoibar", Columbia A 1036 ("Ezkondu eta handik", "Ederra da loria" eta "Trikitixa de Elgoibar", Columbia A 5179 ("Arin-arin", "Porrusalda").

Lorenzo Sodupe (1917-1954)

Manuelen seme zaharrena izan zen Lorenzo, hau ere, aita bezala, soinuarekin trebea. Lorenzo oso gazte zela hasi zen aho-soinuarekin eta bi ilarako filarmonika ere oso ondo jotzen omen zuen. Hala ere, bere espezialitatea soinu botoiduna edo kromatikoa zen. Instrumentoa oso erraz menperatzen zuen. Leku askotan ibilitakoa izan arren, batez ere Bizkaia zuen gustuko eta oso estimatua zuten. Igandero jotzen zuen Barinagan eta hantxe konbenzitu zuten Ameriketara joateko 30 urte zituela. Zazpi urte geroago hil zen

Pedro Sodupe

"Gelatxo":

"Nik bizi izandako erromerixarik ez da berriz bueltauko!"



70 urte dituen gizon hau jaio aurretik zen musikoa. Panderoarekin hasi, tronpetarekin jarraitu eta soinuarekin geratu zen. Pianozko soinu handia jotzen ezagutu dugu Pedro, nahiz eta trikitia ere ondotox ikasi zuen. Aitaren erreperitorioa berreskuratzeaz gain, banda eta txistulariengandik etorri diren pieza asko berak moldatu zituen soinuarekin jotzeko. Are gehiago, bere konposizio asko jo izan dituzte eta jotzen dituzte trikitilari famatuenean. Berak dioenez, bizi izandako erromeria eta festa giroak nekez bueltatuko dira baina oroitzen mordo du eta ilusioz jarraitzen du oraindik ere bazter guztiak alaitzen. Gelatxorena da 'jazzband' talderik garrantzitsuenetarikoa, Pedrok soinua, Enrike Egurennek saxofoia eta Jose Makazagak, "Ziolar", bateria jotzen dutelarik.

- Pelikuletatik ateratzen zenituen doinuak, ez?

- Bai, repertorixua pelikuletan eta modan zeuden musiketatik hartzen genduan, adi-adi entzun eta gero papelera pasau. Asko autoriek bialtzen ziguten, eurek indako piezak eta hola. Gainera, "Canciones del mundo" eta holakuetara subskribiduta geunden eta korreos bialtzen ziguten etxera. Ondiok ere armaixokadia dakat partituraz beteta!

- Trenez lehenengo, motorrez gero...

- Gehixenetan trenian juten ginan edo gurdixan bialtzen genduan soinua eta baterixia. Eibarren lanian hasi nitzanian eskopetak itxen, Vespa bat erosi eta soinua belaun artian hartuta juaten nitzan.

- Debekatuta zegoen garaian 'agarraok' jotzen zenituen.

- Bai. Elgoibarren lagatzen zebeu baina Madarixan ez, eta han juten nitzan ni. Jendiari soltitan eta 'agarrauan', bixetara dantza itxia gustatzen jakon. Zelako erromerixak izaten zian! Oin ez dao holakorik!

- Hala ere, Elgoibarren plaza subastatu egiten zen, ez?

- Bai, zeinek gehixu ordaindu, harek lortzen zaban plazia. Dantzara urtetzen zan mutil bakoitzari zeozer kobratzen ziogun eta tiketa ipini jertsian. Neskek debalde zaken nahi zabenien eta nahi zabenakin dantza eitxia.

- Orain ez dago horrelakorik.

- Ez. Lehen jotzen amaitxu arte ez zakizun zenbat diru etarako zendun, noiz amaitxuko zan erromerixia... Oin, berriz, jotzen hasi aurretik bada-kizu zenbat pagauko dizuen, jende asko edo gutxi urten dantzara, eta beti dakizu zenbat denbora iraungo daban dantzaldixak, bi ordu, hiru...

- Soinujolea ezezik, dantzari aparta ere ba omen zinen.

- Bueno! Makina bat dantza indakua naiz ni! Baina, soinuakin hasi eta dantzia laga in bihar. Batzutan soinu-jotzen egonda inbidixa piska bat ere ematen zian han dantzan ikusitxa baina, bestiak nola gozatzen daben ikusitxa ere norbera pozik.

- Diskarik ez duzue sekula grabatu.

- Ez. Disketxiak etorri bai grabatzia eskaintzen, baina horretarako denboria bihar da prepartzeko eta, denborarik ez! Kilometroak Elgoibarren in zanian orduantxe pieza bat jo bihar gendula eta haura in genduan.

- Noiz arte izango dugu "Gelatxo"?

- Sasoi dauan bitxartian ni prest. Bestela izaten dia momentu txarrak baina pare bat ordutan soinua jotzen jarri eta jendia dantzan ikustian

Ba al daukazu udalekuetara joateko asmorik?



NAHIA ABAD
7 urte

Aurten ez naiz jun gogorik ez nakalako, baina datorren urtian Aubixara jungo naiz ze inbixia ematen dia; jun dianak oso ondo pasau dabe.



LORENA BABARRO
14 urte

Oin ez naiz juten baina sasoi batian bai eta ondo pasatzen gendun. Lagunak ez dia juten eta nahixao izaten dogu oporrak gure kontura planeatzia, kanpinian, adibidez.



ALBERTO FERNANDEZ
9 urte

Aurten ez nua baina beste urte batzuetan Aubixan egon naiz, hiru urtetan segidan jun naiz eta oso ondo pasau izan dot. Aurten aitzak ez dia laga eta oporretan ere gurasuekin jungo naiz.



BORJA ORTIZ DE URBINA
7 urte

Aurten Aubixan egon naiz, bost egun pasau ditzugu eta ondo-ondo ibili naiz. Mendira jun gera, jolastu, olinpiadak ein eta lagun mordo bat ein ditzut.



ION MARTINEZ
10 urte

Ez naiz sekula jun. Lagunak jun izan dia baina nik aurten ez naukan gogorik. Oporretan Elgoibarren ibiltzen naiz, jolasten Urasandin edo bestela kalian.



MELANY LOZANO
7 urte

Aubixan egon naiz aurten lelengo aldiz. Gauza mordo bat ein ditzugu begiraliekin: mendira jun, diskotekan jolastu,... Askok gustau jata eta datorren urtian beriz jungo naiz.

POL-POL

T A B E R N A

San Bartolome, 19 - Tel: 943 74 08 74



MEKANOSA

Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

Apir obetatu udakia gida baimena aberatzeke



Santa Ana, 11 • Tel: 943 74 10 11

bena emateralean %10eko beharpena gaste txartelarekin



“Euskaldun izatearen harrotasunak, zuhurtasunak, ekinaren pozak eta kemenak bakarrik ziurta dezakete euskararen eta euskaldunon etorkizuna”



JON ETXABE JAUREGI

Zumaian jaio zen 1959. urtean

1990etik Elgoibarren bizi da

Nazioarteko abokatua lanbidez eta Abokatu Elkargoko Euskara Batzordeko kidea.

- Espainiako eta Frantziako Konstituzioek erdara jakitera derrigortzen gaituzte. Euskara, berriz, kasurik onenean, eskubide bat baino ez da.

Kontuan hartu behar dugu gure historian zehar euskara baseritarren hizkuntza arlotea izatetik hiritar urbano guztien eskubide izatera igaro dela eta gaur egun edozein giza arlotan euskara jakin beharra aurreikusten dela. Beraz, eskubide izatetik behar izaterako bidean goaz eta etorkizunean legeak beharrezkotzat joko du hainbat arlotan, denetan ez baldin bada ere.

- Jon, aurreko lau asteetan euskaldunon eskubideei buruz jardun dugu, baina ez al dago alde handiegia euskaldun batzuen eskubideetatik besteenetara? Zergatik hain egoera ezberdinak?

Iparraldeari dagokionez, 1789ko Iraultza Frantsesak modernitatearen izenean hizkuntza bakar bezala frantsesa onartu zuen, Estatu zentralizatu eta errepresioa areagotu zuen frantses batasunaren izenean. Hegoaldeko historia desberdina izan da; foruak 1876 urtean ezabatu ziren eta ondoren, hizkuntz eskubideak onartzen zituzten bi autonomi estatuto izan ditugu. Hori dela eta, eta konparatiboki, euskara hemen erresistentzia baldintza hobe izan da.

- Administrazioan, poliziarekin, osasun arloan eta gainontzeko esparruetan daukagun eskubideak ezagutu ditugu baina, zoritxarrez, askotan ez dira errespetatzen. Zer egin daiteke kasu hauetan?

Argi jakin behar dugu Administrazioako edozein esparrutan gu garelako pertsonarik errespetagarrienak eta errespetuz eta behar den bezala adieraziz gero, ez dago zertan ez azaldu euskaraz hitz egiteko eskubidea, eta noizbehinka ahotsa altxatzen eta bakoitza bere tokian jartzeko beldurrik ere ez da izan behar.

- Beste batzuek diotenez, berriz, euskaldunok legeak lagatzen digunaren azpitik omen gabilta kasu askotan.

Euskaldunok, euskararekiko oso jende makala eta akonplejatua garelako ondo demonstratu dugu. Ez dugu inoiz jakin izan gure politikoak eta, beraz, administrazio-buruak, euskara jakitera behartzen, nahiz eta legeak horretarako aukera eman. Oraindik ere nazionalistatzat aurkezten den hamaikatzok barra-barra gaztelaniaz egiten dituzte beren bilerak. Herritarrok esan behar diegu behingoz ‘nahikoa da eta utz iezaiguzue tokia euskaldunoi!’

- Amaitzeko, gaur egungo legediarekin garantizatu al daiteke euskararen eta euskaldunon etorkizuna?

Ez gaurko legeak ez hurrengo lege hobe batek ez dute ezer garantizatuko. Bakarrik euskaldun izatearen harrotasunak, zuhurtasunak, ekinaren pozak eta kemenak ziurtatuko dute gure izan nahia.



● Hil amaierako azoka urtailaren 24an izango da

Uztailaren azken larunbateko azoka hilaren 25ean, Santiago Eguna suertatu da aurten. Jaieguna denez, Udalak azoka egun bat lehenago egitea erabaki du, hilaren 24an hain zuzen.

● Goitek Elgoibarkoenpresak akzesita eskuratu du Toribio Etxeberria lehiaketan

Elgoibarko Goitek enpresak Eibarko Toribio Etxeberria enpresa lehiaketan hartu du parte. Joan den astelehenean eman ziren ezagutzera zein izan diren saridunak. Berrikuntza eta sorkuntza teknologikoen ataleko irabazlea Lasarteko enpresa bat izan da eta Goitek-ek lehenengo akzesita eskuratu du. Akzesitak ez du dirutan saririk izaten. Sari banaketa ekitaldian Juan Jose Ibarretxe lehendakariordea, Roman Sodupe Diputatu Nagusia, Gillermo Etxenike Ekonomia Diputatu, Eibarko alkattea, Tekniker-eko zuzendaria eta beste zenbait pertsonaia ezagun bildu ziren.

● San Fermin jaiak Kultur Etxeko pantailan ikusteko aukera

Urtero bezala, Udala Kultur Sailak hitzaldi gelan duen pantaila handian San Ferminetako entzierroak zuzenean ikusteko aukera eman nahi die herritar guztiei. Uztailaren 7tik aurrera (asteartea)

Euskal presoak Euskalerriratzearen aldeko herri plataforma sortu da

Hainbat alderdik, elkartek eta pertsonak bat egin dute helburuekin

Joan den ostegunean “Euskal Presoak Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataforma”ren aurkezpena izan zen Kultur Etxean. Elgoibarko elkarte, alderdi politiko, sindikatu eta norbanako ugarik osatzen dute plataforma hau, nahiz eta argazkian batzuk bakarrik agertzen diren. Herritar eta elkarte mordoska batek euren atxikimendua azaldu dute plataformaren helburu eta filosofiarekiko, hala nola, EA, IU, HB, ELA, LAB, EILAS, CCOO, Elkarr, Errotatxo, Morkaiko, Gazte Asanblada, Jarrai, Zazpiki, Leizarpe Espeleologi Taldea, Ekekei, Senideak, Ongarri Zine Kluba, Taupada eta Haritz Dantzari Taldea. Aurkezpenean adierazi bezala, “sakabana-keta politika salatuzko, presoek giza eskubideak aldarrikatzeko, azken finean, presoek hurbilketa eskatzeko eratu da Elgoibarren plataforma hau, beste hainbat herritan bezala. Ezin zaio bizkarra eman



gizartearen gehiengoaren nahiari. Honen lekuko dira, esaterako, Eusko Legebiltzarrean zein hainbat Udaletan, Elgoibarkoan tarteko, lortu diren akordioak”. Plataforma asteartero bilduko da Kimetz Elkartearen eta edozein izan daiteke partaide. Plataforma eratzea lehenengo urratsa baino ez da, “ikusiko dugu nola erantzuten duen bai Udalak eta bai herriak”. Horregatik, “herritarrei euren atxikimendua adieraztera gonbidatzen diegu presoek aldeko manifestua sinatuz eta antolatu ditugun ekintzetan parte hartuz.



aitor zabala

Altzolatarren protesta tren geltokia kendu nahi dutelako

Astelehenean, ekainak 29, Altzolako auzotarrak protesta ekintzak egiteari ekin zioten Eusko Trenbideak enpresak Altzolako tren geltokia kendu nahi duelako. Horrela, bada, Donostiatic datorren trenaren geldiarazteko, argazkian ikusten den bezala, kartoizko kaxa hutsak jarri zituzten baina trenak bere bidea jarraitu zuen, protestak inolako eraginik izan ez zuelarik. Auzotarrak protestarekin jarraitzeko asmoa dute eta dagoeneko J. M. Oruesagasti alkateordearekin izan dira arazoa konpontzeko eskatzeko.




libar-Gasteiz autopistaren kontrako protesta

Gazte Asanbladak deituta, 50 bat gaztek manifestazioa egin zuten joan den zapatuan “errepresioaren eta autopistaren kontra” protestatzeko. Gazteek Madalatik Plazarainoko bidea egin zuten errepresioaren aurkako kontsignak oihukatuz eta tanbor batekin zarata ateraz. Argazkian, San Frantzisko kalean egin zuten jarrialdia.

Bikien bataioa

Joan den astean esan bezala, ekainaren 21ean herriko 23 haur bataiatu zituzten. Zerbaki hartan argazkirik ateratzerik izan ez genuenez, oraingoan egingo dugu. Soarte Argazkidendakoek lagatako bi erretratu hauetan bikiak bataiatzen ikus ditzakegu. Izan ere, kuriosoa izan zen bi bikotek izandako bikiak egun berean bataiatzea.



Elorrixan egun pasa

Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatuta, 70 bat lagun egun pasa joan ziren ekainaren 21ean Zumaia eta Elorrixara. Esan digutenez, ederki pasatu zuten, “izugarritzko ambientia izan genuen; musika ere egon zen eta dantzan aritu ginen...”. Argazkian ikus daitekeenez, soka-tiran eta zaku lasterketan ibili ziren eta batek baino gehiagok agujetak izan zituela jakin dugu.



164 haur Atxutxiamaikaren udalekuetan

Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaiak Begirale Taldeak, Udala-ren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin antolatutako udalekuetan herriko L.H.-ko 3 ikastetxeetako 164 hurrek hartuko dute parte. Hauetatik 114 Udaleku Irekietan arituko dira, eta beste 50 Udaleku Itxietan. Ekintzen artean, jolasak, irteerak eta eskulanak dira aipagarrienak, eta nola ez, San Fermin Txiki Eguna uztailaren 14, zezentxo eta poniak izango direlarik Plaza Handian.

Pariseran ikas-bidaian

Hilaren 12tik 19ra bitartean, Herri Institutuko 55 ikasle eta bi irakasle Parisen izan ziren ikas-bidaian. Ederki ibili zirela esan digute, “nahiz eta lehenengo hiru egunetan euria eta hotza egin zuen. Azken egunean, Futuroscope ikusten geundela, demaseko sargoria zegoenez, bero izugarria pasatu genuen”. Pariseko txokorik ezagunenak ezagutu dituztela azaldu digute, “Eiffel dorrea, Sena ibaia, Notre Dame katedrala,... eta Eurodisney eta Futuroscope ere bai”. Argazkia Futuroscope-n izan zirenean atera zuten.



Pilar ikastetxeakoak Euskal Herriko txokoak ezagutzen

Pilar ikastetxeako ikasleek ikasturte amaiera dela-eta, egun eder bat pasatzeko asmoz eta, bide batez, Euskal Herriko txokoak ezagutzeko hainbat irteera egin dituzte. Batzuk Iruñian izan ziren planetarium-a ikusten; beste batzuk Gernika aldea ikusi zuten; beste zenbaitek Bilboko Guggenheim museoan ezagutzeko aukera izan zuten eta, urtero bezala, beste talde batzuk Arratera eta San Pedrorra joan ziren egun pasa. Guztien argazkiak ateratzerik ez dugunez, hona hemen Guggenheim museoan izan zen taldearena.



Fur goneta berria eskuratu du Udaltzaingoak

Azken asteotan Elgoibarko Udaltzaingoak eskuratu berri duen Mercedes Benz furgoneta ikusi ahal izan dugu herriko kaleetan zehar. Jabier Oñederra sargentuak esan digunez, "Sigman honelako bi furgoneta zeuden. Bata Brigadaren eskuetara pasa da eta bestea guretzat geratu da". Aurretik Opel Corsa bat zuen Udaltzaingoak. Oñederraren hitzetan, "furgoneta ondo etorri zaigu, izan ere, estintoreak, bailak eta beste-lako materiala sartzeko askoz toki gehiago dauka. Furgoneta autoa baino praktikoagoa eta funtzionalagoa da".

Bozeramaleen Junta deitzeko eskatu du PPko zinegotziak

Juan Carlos Abian, PPko Elgoibarko zinegotziak jakinarazi digunez, alkateari zuzendutako eskutitz batean Bozeramaleen Batzordea biltzeko eskatu du bertan Sigmar buruzko informazioa jaso eta azter dezaten alderdi politiko guztiek.

ETAren azken hilketaren aurkako protesta ixila

350 bat lagun elkartu ziren Plaza Handian

Manuel Zamarreño, Errenderi-Oreretako PPko zinegotziaren hilketa salatzeke, joan den ostiralean, eguerdiko 12:00etan kontzentrazioa egin zen Plaza Handian. EUDELEk deituta (Euskadiko Udalen Elkarteak), eguerdiko 12:00etan herritar mordoska hasi zen Plazara hurbiltzen. Banan banan zein taldeka, gero eta jende gehiago pilatzen joan zen, jendezirkulua handituz eta zabalduz. 350 lagun inguru elkartu ziren gutxi gorabehera. Udal

agintariak ere han izan ziren, Guillermo Garate alkatea eta Jose M. Oruesagasti alkateordea, besteak beste. Kontzentrazioa ixilean izan zen. 12:00etan hasi eta 15 minutu beranduago, txalo zaparrada baten ostean amaitu zen.

Bestalde, jakin dugunez, Miguel Angel Blanco, Ermuko PPko zinegotzia 97ko uztailaren 12an hil zutenetik, atentatuak izaten diren guztietan hainbat herritar Plaza Handian elkartzen dira arratsaldeko 20:00etan hilketa salatzeke.



KARKIZANO
San Franzisko 12-14 - Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
☎ 943 20 35 15 ● ☎ ABERIAK 943 20 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola S.L. Egurrak
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 909 53 23 83

MANUEL OLARIAGA:

“Basozainak polizia lana egin behar du batzuetan”

Manuel Olariagak 42 urte ditu eta Azkoitiko Txomingorri baserrikoa da. Hiru urte daramatza Elgoibarko Nekazaritza Bulegoan. Manuel basozaina da eta bere lanbidea zertan oinarritzen den azaldu digu.

- Ikasketa berezirik behar al da basozaina izateko?

- Ez. Nik oposaketak atera nituen garaian F.P. 2 edo Batxilergoko goi mailako ikasketak eskatzen zituzten. Nere kasuan, baserritarra naizenez, beti gustatu izan zait mendi eta basoetan ibiltzea, beraz, lanbide hau benetan aproposa zela iruditu zitzaidan.

- Zein da zehazki basozainaren zeregina?

- Oinarrixan, baso, mendi, errekek, animalia eta piztiak zaintzeaz arduratzen

naiz. Lehen errekek zaintzeko pertsona berezi bat egoten zan baina oin basozainak bere gain hartzen dau dana.

- Bakoitzak zona bat daukazu, ez?

- Bai. Nere zona Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Mendaroko baso eta mendiek osatzen dute. Guztira 9.000 hektarea inguru.

- Bulego batean zaude orain. Basozainak ez al du basoan egon behar?

- Astean egun bat bulegora etortzen naiz, ze hemendik tramitatzen ditzut papela guztiak, jendiari informaziua ematen diot...

- Euskal Herriko zuhaitz eta landaretza mantentzea ere zuen ardura al da?

- Neurri batean bai. Normala dan bezela, bertoko zuhaitz eta landaretza errespetatu eta zaindu egin behar da. Zoritxarrez pinu asko sartu izan da inguruko mendixetan eta hori normala da, ze baserritarrari dirua pinuak ematen dio, ez pago edo haritzak. Hala ere, azken 10 urteotan pago eta haritz asko landatu dia eta pinuak behera in dabe.

- Erraza al da baso eta mendien egoera kontrolatzea?

- Ez da erreza, ze hektarea asko dia eta egunero basora junda ere, beti daude gauza batzuk ezin diazenak kontrolau. Jendian artian

danetik dao eta batzutan polizia lana ere in bihar dou legia errespetau daixen.

- Suteak ere ezagutuko zenuen, ezta?


- Bai. 1990 urte inguruan, ikaragarritzko lehortia egon zan eta ondorioz hemen inguruan baso eta mendi asko erre zan. Hala ere, 8 urte pasatu dia eta harritzekua da, baina hasieran uste genduan baino hobeto errekueraua da lurra. Landatutako zuhaitz eta landariak oso erreaz ari dia hazten. Lur ona dao hemen inguruan, Gipuzkuako onenatarikua.

- Arrantza aipatu duzu lehenago. Ba al daude arrainak gure erreketan?

- Errekastuetan bai, dexente gainera, nahiz eta enpresa batzuk ondiok ere zikina bota. Ehiza eta arrantza mugatuta daude eta nik uste dot jendiak gero eta gehixo errespetatzen dabala hori. Garbi dao guk geuk euki bihar dogula kontzientzia gai hauen inguruan, ze bestela alperrik da.

- Asmatu zenuen, beraz, lanbidea aukeratzean.

- Bai, bete-betian. Hiru tokitxan egon izan naiz eta batetik bestera aldatzerakuan beti sentitxu izan dot penia. Gustura itxen dot lana eta hasieran mendi eta baso berrixetan ibiltzia zail xamarra dan arren, segiduan ezagutzen ditzuzu paraje guztiak.



Aseguruak

Guztiok jakingo duzuen bezala duela pare bat aste San Lorenzo bailarako Artazo baserria erre egin zen. Baserria erabat sutsituta geratu da eta beharrezkoa izango dute berreraikitzea. Kontua da, horrelako gertaeren aurrean hainbat gauza etortzen zaizkigula burura, horien artean aseguruak. Izan ere, garaiz egindako aseguru on bat izateak arazo asko ebata diezazkiguke. Artikulu honetan gai hori aztertuko dugu, aseguruena alegia.



ENBA, baserriarren elkarteak Bakarnekin azaldu digunez, “gaur egun gero eta ohitura gehiago dago baserriaren artean aseguruaren bat egiteko. Izan ere, garai bateko baserriarrek ez zuten planteatu ere egiten aseguruarekin baina, zorionez, gazteek beste ikuspegi bat dute eta berehala ohartzen dira aseguru on bat izateak duen garrantziaz”.

Baserri gehienek, beraz, aseguruarekin dute. Egia da azpiegitura aldetik asko hobetu direla baserriak azken urteotan. Sistema elektrikoa onak izatea, hormak hormigoizkoak izatea egurrezkoak beharrezkoak, horrek guztiak asko gutxitzen dute edozein arrisku. Hala ere, sekula ez dakigu zer gerta daitekeen, “eta edozein unetan sua sor daiteke, edo haizeak kalteak eragin diezazkiguke, euri eta elurteek, tximistaren baten... Horren aurrean babestua egotea komeni da”.

Aseguruak sute kasuan sua itzaltzeak suposatzen duen kostua, garbiketa eta baserria kubritzen dute,

“ehuneko ehunean ez, baina bai zati handi bat. Segun eta zenbatean aseguratuta dagoen baserria, orduan eta gehiago kubrituko du, noski”. Aseguruak, edukizailerak (contenente) ezezik, edukia (contenido) ere babesten dute, “sekula ez dizute galdutako kopurua oso-osorik itzuliko baina laguntza handia izan daiteke”.

Istripu aseguruak

Aurrez aipatutako aseguruarekin gain, istripu aseguruak egitearen garrantzia ere azpimarratu du Bakarnekin, “baserriarrek zoritxarrez arrisku asko izaten dituzte euren eguneroko lanean, makinariarekin ibiltzen dira, zuhaitzak mozten... Seguritate Sozialak eskaintzen dien baja oso txikia da eta baserrian egiten ez den lana hor geratzen da egin gabe eta horrek galera suposatzen du. Ez da lantegian bezala. Aseguruak Seguritate Sozialerako bajaz gain beste diru sarrera bat gehiago eskaintzen dute eta beste pertsona

bat hartu behar bada baserrian laguntzeko, horri ordaintzeko laguntza ere ematen dute”. Beraz, istripu aseguruak oso garrantzitsuak dira.

Bakarnekin esan duenez, “hasiera batean, aseguruarekin kontratatutako orduan kostua suposatzen duela iruditzen arren, gero, zerbait gertatuz gero, asko eskertzen da eta komenigarria da aseguru on bat egitea”.

ENBA sindikatutik era guztietako laguntza eta informazioa lutzatzen dute baserriarren artean. Norbaitek gai honen inguruan zalantza edo kezka izango balu, ENBAko 943 65 01 23 telefono-



USATORRE baserria

Astehenean amaitu ziren San Pedroko jaiak. Larunbatean hasita, festa giro alaia bizi izan zuten aste-buru osoan auzotarrek. Data berezi hori kontuan hartuta, San Pedrorako jo dugu baserri baten bila. Eta bertan, Usatorre baserriarekin egin dugu topo.

Usatorre baserriak aspalditxo erabaki zuen baserriko lana lagatzea. Ion Loiolak azaldu digunez, “aitxitxa hil zanian, duela 20 urte inguru, erabaki gendun poliki-poliki baserriko lanak lagatzen hastia. Zaldixak dauzkagu mendixa garbitzeko, oilasko batzuk...”. Hala ere, basogintza lantzen dute eta, Ionen hitzetan, “pinuak mozten diazenian mendixa garbitxu eta zaindu in bihar da eta horrek ere lan asko ematen dau”.

Heroe gutxi

Ionek oso garbi du “2.000. mende bueltan oso heroie gutxi geratzen diazela. Guk 8 orduko lana dakagu eta horrez aparte baserrixan ere jardun bihar-ko bagenu, asteburuak barne, bizitza katiauta eukitzia izango litzake”. Ionek eta bere aitak baserriatik kanpo egiten dute lan, “eta lan itxia oso inportantia da heldutasun batera iritsi eta independentzia ekonomikoa izateko”. Hortik aurrera, Ionen hitzetan, “bakoitzak erabakitzen du baserri munduari zer eta nola eskaini. Ni auzoko alkatia naiz, eliza mailan ere sartuta naio eta holako gauzeekin pentsatzen det baserriko produkzio gehixo lortzen detela ortuan lan inda baino. Baina hori bakoitzan erabakia eta iritzia da”.

Bizimoduaren aukeraketa

Garbi dago Ionen guraso eta aitonan-amonen bizitzeko era bat ezagutu eta, poliki-poliki, bizitzeko beste era batera ohitu beharra izan zutela. “Ez da ez hobe, ez okerragoa, baina garai bakoitzera egokitxu bihar da”. Jende gaztearen artean ikusi duenez, “uste dot denboriakin desagertzen jungo dala baserri bizi dan jendia. Baserriak asko lotzen dau. Eta oingo gaztiak beste era batera ohitxu dia. Egun sargori batian, jendia trankil dauanian, baserriak larrera urten eta belarra batu bihar dau nahi eta nahi ez. Zapa-



Auzoko alkatea

Ion loiolak 3 urte daramatza San Pedroko alkate. “Ilusioz hasi nitzan, gauza asko itxeko goguakin”. Argi laga nahi du berarekin batera, “bost neskaz osaturiko lantaldea egon dala eta guztion artean ahalegindu gerala hainbat eta hainbat gauza antolatzen. Azpiegitura mailan gauza batzuk in nahi genitxun eta ahal izan dan neurrixan lortu dia. Beste erronka bat zan auzo mailako bizitza lantzia eta alde horretatik nahiko desilusionatuta nago, ze San Pedroko jendiak nahiko bizimodu independentia darama eta ez da gehiegi inplikutzen”. Datorren urtean izango dira haustekundeak eta ez du asmorik aurkezteko, “jendea prest azaltzen bada laguntzeko prest naio, baina gehixo ez. Esperientzia bezela aberasgarria izan da, ze beti ikasten da”.

tuan juergia itxen badau ere, igande goizian goiz jaiki bihar da baserriak arduratzeko”. Azken batean, Ionek adierazi duenez, “aukeria pertsona bakoitzak in bihar dau baina baserriak jaixo izanak ez dau baldintzatu bihar bizimodua. Pertsona batek nahi badu baserri bizi, oso ondo. Eta pertsona batek nahi badu, nahiz eta baserriak jaio, ikasketak euki, lana topau eta bizitza independentia euki, ba oso ondo baitxa ere. Garai batian baserriak ez zeuden ondo ikusitxa, inkultuak zian. Oin gauzak, zorionez, aldatu in dia”.

USATORRE

- **Auzoa:** San Pedro
- **Bizilagunak:** Josefa Garate 77 urte; Jose M. Loiola, 49 urte; Manuela Ansola, 49 urte eta Ion Loiola, 22 urte.
- **Lur hedadura:** 32 hektarea.
- **Esplotazioa:** Basogintza.

BIZIKLETA gainean

ELGOIBAR-SAN MIGEL-URKAREGI-ARNOATE-MENDARO-ELGOIBAR

Distantzia: 22 km.

Denbora: 2 ordu

Zailtasuna: ertaina

Eskuman Arnoate baserria ikus dezakegu. Baserri honetan egiten dute muga Elgoibar, Mutriku eta Markinak.



Irteera honetan San Migelera jo behar dugu lehenik eta behin. Argazkian, ermita.

■ **1** Elgoibarko Plaza Handitik atera eta San Migelera joango gara Santa Klaratik gora abiatuta. San Migelera iritsi eta Bizkaia eta Gipuzkoak muga egiten duten puntura iritsiko gara, Urkaregira.

■ **2** Puntu horretan bidegurutze bat dago eta eskumara hartuta zementozko pista batetik jarraituko dugu. Aurreraxeago egurrezko kartel batekin egingo dugu topo. Bertan, GR 121 eta GR 123 jartzen du.

■ **3** Zementozko pistatik jarraituko dugu. 200 metrotik 200 metrora marka gorri eta zuria ikusiko ditugu eta horiei kasu eginez segituko dugu.

■ **4** Bidegurutze batera iristean, ezkerretara Oizate eta Amunategi baserriak lagako ditugu. Guk eskubiko bidea hartuko dugu, mendiko pista gorantz hartuz.

■ **5** Mendiko pistari jarraituz Arnoate baserrira iritsiko gara. Baserri honetan muga egiten dute Elgoibar, Markina eta Mutriku herriek. Hemen dago, baita ere, izen bereko iturria, orain dela gutxi berri-tu dena.

■ **6** 10 km.ko ibilbidea daramagu eta Arnoaten, ezkerretara bide gorria eta zuria lagata, zuzen jarraituko dugu, Mendarorantz. Mendiko pistatik 600 metro ibili eta gero, zementezko pista batera iritsiko gara. Lau edo bost baserri pasako ditugu jaitziera



gogor eta oso aldapatsu baten zehar. Kontuz ibili behar da, frenoak ondo izan eta buruan kaskoa eraman.

■ **7** Mendaroko Plaza auzora iritsiko gara eta handik berriz ere Elgoibarrera.

Informazioa:

Andoni Etxeberria

Ainhoa Juaristik ez du sekula ahaztuko ekainaren 20a. Izan ere, egun sargori hartan, bere jaiotetxea, bere bizilekua sugarrek nola jaten zuten ikusi zuen. San Lorentzo auzoko Artazo baserria suak erabat suntitu zuen. Hormak erori eta azpian betirako galdu ziren hainbat eta hainbat oroitzapen, bizipen, argazki eta mementu. Bi aste pasara dira eta oraindik ere gauetan sugarren soinua entzuten duela aitortu digu Ainhoak.

ESTRATU AINHOA

"Gabetan sugarrak entzuten ditzut ondiok"

- **Kontaiguzu nola izan zen guztia, Ainhoa.**

- Ni eta anaia Mintxeta baserriko Pedro Marikin ganbaran lastua sartzen geunden. Amama sukaldian, plantxia eitzen. Arratsaldeko 4:00ak aldera zan eta 190 lasto farduak sartzen amaitutakuan Pedro Marik sua ikusi zuan ganbaran eta korrika jun zan lastua kentzera baina berandu zan, erditxik urten zan sugarra. Ezin zan emendau.

- **Zein izan zen lehenengo erreakzioa?**

- Mintxetak idi paria eta ahuntza askatu zitxun kortatik eta ni amamana jun nitzan, bitxartian anaixa bonberuei deitzera urten zan. Ni nere logelara jun nitzan erropa batzuk etartzera eta gero gurasen gauza batzuk ere hartu nahi izan nitxun baina dana kez betetzen hasi zan eta azkenian neriak lagata aman soineko batzuk

bakarrak salbau nitxuan. Amama, anaixak eta bixok etara bihar izan genduan, bere logelan zauan papelak bilau nahixan.

- **Suhiltzaileak etorri zirenerako berandu zen, ez?**

- Bai. Deitxu eta momentuan etorri ezkerro etxebizitza salbatzia lortuko gendun baina hiru ordu laurden tardau zebe eta baserrixa egurrezkua zanez segi-txuan hartu zaban suak. Hala ere, eskerrak haizerik ez zauan, ze bestela mendixa ere hartuko zaban. Astebetera ere sua zauan ondiokan.

- **Gurasoek bazkaria zuten Aubixan.**

- Bai, lehengusuen bazkarixa zaken. Auzoko batek deitxu ziuen baina hasieran pentsatzen zebe ganbaria bakarrak zauala sutan. San Pedrotik behera zatozela baserrixa sutan ikusi zebe, ama amama siestan egongo

zala-eta arduratuta zauan... Sekula euki daban biajerik luziena izan zan.

- **Baserria nola erretzen zen ikusten geratu al zinen?**

- Bai. Nahi izan zebe ni handik eramatia baina nik geratzia nahi naban. Nere begixekin ikusi naban baserrixa, nere etxia erretzen. Ikaragarrixa zan, sukaldia erretzen, handik urtetzen zan argixa... Hainbeste eta hainbeste oroitzapen errezian! Erropia eta holakuak galtziak ez ditz penarik ematen baina txikitxako argazki danak galdu ditzugu eta hori ezin da berreskuratatu. Baserrixa erreta agertzen dan argazkixa badakagu eta lehen zan bezela ere badao liburuan, baina beste ezer ez dakagu.

- **Asegurua bazenuten eta jaialdi bat ere antolatu nahi duzue.**


- Bai, seguruak ez dau dana kubritzen eta jaialdi bat antolatzekotan gabiz laguntasuna jasotzeko.

- **Noizko ikusiko dugu berriz ere Artazo baserria tente?**

- Bi urte kalkulatzan dogu. Oin bakoitza leku batian gaude eta laster etxe batera jungo gera, baina berriz ere San Lorentzora bi urte barru jutia espero dou. Nik ez dot txaletikan nahi, nik lehengo baserrihan ahalik eta berdina nahi dot, nere logelia, nere txokuak...

- **Egunero joaten zarete baserrira, ez?**

- Bai, ni bai. Hara jende asko juten da eta hitz egiten egoten gera, ortuan lanian, distraitzen... Han bizi izan naiz beti eta hara jun biharra dakat. Artazo nere etxia da eta izango da beti.



●●●● JAIOTAKOAK ●●●●

- Jone Arriola Lobete (Ekainak 2)
- Jon Mugerza Guerra (Ekainak 13)
- Sara Elkorro-Irribere Iriondo (Ekainak 23)

●●●● EZKONDUTAKOAK ●●●●

- Miren Estarta eta Jorge Arriola (Ekainak 6)
- Onintza Agirregomezkorta eta Iker Beitia (Ekainak 6)
- Jose Abel Fernandez eta Rosa Maria Aranda (Ekainak 20)
- Xabier Uranga eta Miren Agurtzane Gorostiza (Ekainak 20)

●●●● HILDAKOAK ●●●●

- Florencio Albiz Urquiano, 67 urte (Ekainak 18)
- Jesus Mari Ortueta Azkarreta, 55 urte (Ekainak 20)
- Antonia Galdos Baskaran, 70 urte (Ekainak 21)

Francisco Uria Oñederra (1908-1979)



- 1903ko otsailaren 2an jaio zen, San Antolin-neko Lizundia Goiko baserrian, bi etxebizitzako etxean.
- Sei anai-arrebetatik zaharrena zen. Geroago baserriko maiorazgoa izan zen. Gaztetan ez zuen eskolara joateko aukerarik izan eta beti egin zuen lan baserriko arlo guztietan. Gogor saiatu behar izaten zuen, baserriak aldapa neketsuak zituen eta.
- Afrikan egin zuen soldaduzka eta, gauzak nola diren, bertan egin zituen zenbait ikasketa, bizi-tan defendatzeko beste.
- San Rokeko Tranpa baserriko Luzia Basurto-rekin ezkondu eta 8 seme-alaba izan zituzten.
- Urte asko eman zituen txondorrek zaintzen. Trebezia handia zuen lanbide honetan. Egurikatz ugari egin zuen gero Elgoibar, Mendaro eta beste zenbait tokitan saltzeko.
- 1936ko gerratean, etxeko idiak hartuta, Arrate inguruan bideak egitea tokatu zitzaion.
- Langile amorratua zen, emazteak lagunduta neke ugari pasatu behar izan zituen familia ugaria aurrera ateratzeko.
- Ehiztari ona zen. Sekula-belarrarekin prestaketak egiten trebea zen eta erbi asko harrapatzen zituen.
- Sinesmen handikoa zen. Urkiolako San Antoniori bisita egiten zion sarri, goiz meza asko egindakoa.
- Zaletasun handia zuen ahari jokoetan, sarritan joaten zen bailarako lagunekin ondoko herrietara ahari-jokoak ikustera. Perretxikoak batzen trebea zen eta bertsoak eta euskal kantak gogoko zituen.
- Gizon sufritua eta zintzoa zen. Elkarrizketa zalea, familia girokoa, alaia eta bailaran oso estimatua bere jatortasunarengatik.
- 1979ko abenduaren 24an hil zen 76 urterekin.

Juanito Gorostiza



ETXEBERRIA

Hileta zerbitzu

OSOA ETA 24 ORDUKOA

KUTXAK - TRASLADOAK - KOROAK

NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.

Donostia eta probintziako eritetxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 16 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56 (Mobila) 908 77 07 01



A

zioarekin hartu zuen parte auz...
 in futbolari jokatu ziren iniako selek-
 endabizi Fle-
 jen, gero Haudin, Eibarren ondoren, eta azkenik, Real Socie-
 dad eta Real Madrilen jokatu zuen Arakistainek. Askotan
 izan zen internazionala eta Mundial hauetan plantila 'histori-

erretratu au-
 ndialak eta
 te eta Mun-
 ik ez da ibi-
 hotan. Hona
 'mundial'.

ko' batekin agertzen zaigu. Lehen fasean kanporatu zituzten,
 Brasil, Txekoslovakia eta Mexikoren aurka jokatu eta gero.

Beste argazkian **Alberto Ormaetxea** Real Sociedad-eko
 entrenatzailea izandakoa, **Jabier Bernedo** altzolatarrak, **Juan
 Bautista Lariz** altzolatarrak (biak Athletic zale amorratuak)
 eta **Jabier Clemente** Athletic-eko entrenatzailea izandakoa
 eta gaur egungo Espainiako selekzionatzailea agertzen zaiz-
 kigu. **Juan Bautistak** laga digu erretratu eta 1984koa izan
 daiteke. Bi entrenatzaileak hitzaldi bat ematera joan ziren
 Mendarora eta ondoren bertako soziedade batean afaldu zu-
 ten. Sasoi hartan Realak bi liga irabazi zituen Ormaetxeare-
 kin eta beranduago, Athletic-ak beste bi Clementerekin.

Biak ere, erretratu historikoak.

DISNEYLAND 3 gau
(4 egunetarako sarrera doan)
(Hendaiaetik trenez) **45.950** pta.tik
(Miarrizetik hegazkinez) **56.700** pta.tik

PARIS 3 gau
(Hendaiaetik trenez) **30.350** pta.tik
(Miarrizetik hegazkinez) **50.300** pta.tik

MARRAKECH 8 gau
(Madriletik) **37.500** pta.tik

KRUZEROA MEDITERRANEOAN
(Bartzelonatik) **92.900** pta.tik

ESKAINITZA BEREZIA!!

CUBA 14 gau (Madriletik)
Uztailak 7
Goi Mailako
Turista Hotela **99.000** pta.

CANCUN 14 gau (Madriletik)
Uztailak 6 eta 12
Turista Hotela **145.000** pta.

TUNEZ 7 gau (Madriletik)
Uztailak 6 eta 13
Port el Kantaoui herrian
P. E., 3 *-eko hotela **49.900** pta.

GREZIA
Uztailak 10
Atenas 3 gau + Kruzeroa 4 gau
Madriletik +
enbarke tasak **129.300** pta.

ZIRKUITOAK AUTOBUSEZ

GALIZIA - Rias Baixas
7 egun P.O. **17.500** pta.tik

BENIDORM
8 egun P.O. **29.900** pta.tik

COSTA BRAVA
8 egun P.O. **37.500** pta.tik

ANDALUZIA
7 egun P.E. **40.900** pta.tik

SALOU - Port Aventura
8 egun P.O. **41.500** pta.tik

ITALIA
10 egun P.O. **79.500** pta.tik

ETA GAINERA...
Bidaia irletara:
Balear irlak, Kanariar irlak, Madeira etab.

Egonaldiak:
Costa Brava, Dorada, Blanca, Azahar, Del Sol, De la Luz, Cantabria, Asturias, Galicia etab.
Hotel Color, Bancotel, Ibercheque, Keytel Pass eta beste hainbat taloitegirekin bidaiatzeko erarik merkeena.

Zatoz eta kontsultatu!



**Soriara
asteburu pasa**

Elgoibarko hainbat emakume mendizalek irteera bat egiten dute urtero Estatuko zein atzerriko txokoren batera. Aurten Soriara joan dira asteburu pasa. Soriako Lobos ibaiko kainoia zeharkatu zutela esan digute, baina turismoa egiteko aukera ere izan omen zuten. Ikusi zituzten tokien artean, Santo Domingo de Silosera bisita izan zen aipagarriena, kanto gregorianoa entzuteko parada ere izan zutelarik. Argazkian, atzean eta ezkerretik hasita, Mertxe Agirre (ei-bartarra), Jose Luisa Huergo, Aintzane Garate, Mari Jose Estibariz, M. Tere Arakistain, Paula Pelaz, Ane Zabala eta Pili Martinez. Behean, M. Pilar Arriola, Arrate Zubia, Lourdes Zubiaurre, Mila Osoro, Bego Narbaiza eta Adrian Langara.

KIROL ALBISTEAK

● **Arrantza Txapelketa La Unión-eko bazkideentzat**

La Unión Ehiza eta Arrantza Elkarteak bazkideentzako txapelketa antolatu du biharko, hilak 5. Txapelketa Deban izango da Danobat lantegiaren parean goizeko 9:00etatik 13:30era bitartean. Izena emateko 907 49 86 22ra deitu edo La Unión Elkartera 943 74 22 38ra. Izen-ematearen zenbatekoa 1.000 pta.koa da.

● **Egoitz Mora eta Xabi Gonzalez berriz podiumean**

Joan den larunbatean, ekainak 20, Ibai Kirol Elkarteko Xabier Gonzalez eta Egoitz Mora judoek Altzako (Donostia) torneoan hartu zuten parte. Egoitzek, 86 kilo arteko pisuan, ez zuen arazorik izan urrezko domina eskuratzeko. Xabier Gonzalezek, berriz, 55 kiloz azpiko kategorian, lehen borrokaldian Espainiako txapeldunari irabazi zion, baina gero, zaharragoen kontra borrokatzea tokatu zitzaion eta azkenik, hirugarren lekuan sailkatu zen. Aipatzekoa da Egoitz Mora Espainiako 17 urtez azpiko selekzioarekin Andorrara joango dela, errendimendu handiko zentro batera. Berarekin batera Maialen Mora, Xabier González eta Josu Idiak ez joango dira, gonbidatu modura

EMAITZAK

Futbol 7 Txapelketa

Ke+Da 8 - Pottokoak II 6
PSK 4 - Litoplasma 7
Azkenengoak 5 - Spartak Pitxote 2
Liverpool-pol 12 - Los Blancanitos 0
Alki '07' 11 - Vander Vela y Cia 1
Larrutxupi 0 - Vultur Gryphus 3
Amañako Zeni Taldea 9 - Zergatik Ez 4
Bar Arkupe 1 - Ford Lerun 0
Majestades Satanicas 1 - Bar Xare 9
ZRU 3 - Sin Perdon 8
Rayas de Amsterdam 5 - F.Astigarraga 4
Murruga 3 - Aide Globun 1
Bar Gure Toki 14 - Zordunak 2
Bar Malape 6 - Bar Amistad 13
Kama Sutra 4 - Kadar 9
Materias Peligrosas 3 - Olaso F. C. 2
Lojantzi 6 - AIK 3
Pimpaos Hilbera 5 - SAS 6
Inkision 26 - Txiri Strike 3

Invencibles.Txer 2 - PAC 10
Bassano '353' 4 - Ful Monti 2
Aizkolariak 1 - R. Oso Takata B. 1
Anorthosis 11 - Ez Dok 2
Guridi Taberna 4 - Violet Kickers 10
Faustino VII 5 - 1664 G.A. 8
wwwInter-Medio.com 11 - S. Vladikaskav 3

AGENDA

**Futbol 7 Txapelketa,
Mintxetan**

Larunbata, 4
9:00 Kama Sutra - Olaso F. C.
Kadar - Materias Peligrosas
10:00 Inkision - PAC
Txiri Strike - Invencibles.Txer
11:00 Bar Gure Toki - Bar Malape
Zordunak - Bar La Amistad
12:00 Lojantzi - SAS
AIK - Pimpaos Hilbera

Bar Xare - ZRU
Igande, 5
11:00 Elec. Egaña - Spartak de Vladikaskav
Faustino VII - wwwInter.Medio-Com
12:00 De la Buena '2' - R. Oso Pataka B
Basano 353 - Aizkolariak

**Futbol 7 Txapelketa,
Unben**

Larunbata, 4
9:00 Azkenengoak - Los Blancanitos
Spartak Pitxote - Liverpool-Pol
10:00 Amañako Zeni Taldea - Ford Lerun
Bar Arkupe - Zergatik Ez
11:00 Ke+Da - Litoplasma
PSK - Pottokoak II
12:00 Alki '07' - Vultur Gryphus
Vander Vela y Cia - Larrutxupi
Igande, 5
11:00 Aide Globun - Rayas de Amsterdam
F. Astigarraga - Murruga
12:00 Majestades Satanicas - Sin Perdon

4,5 milioiko defizita izan du C. D. Elgoibarrek 97/98an

Gastuen atalean ez dira 28 milioira iritsi, helburua bete dutelarik

97/98ko balantze ekonomikoa aurkeztu zuen C. D. Elgoibarko zuzendaritzak asteazken iluntzean. Gaur egungo zuzendaritzakoen azken bilera izan zen. Jose Ramon Zabala presidenteak kirol arloko balorazioa eginez eman zion hasiera.

Iaztik hona lau taldek kategoriaz igotzea lortu dutela aipatu zuen presidentek. Neskek, berriz, iaz lortutako maila galdu dute aurten. "Talde gogorragoen aurka jokatu behar izan dute eta lesioak ere izan dituzte. Normala da kategoriaz jais-tea. Infantilek eta kadeteek oso denboraldi polita egin dute, baita jubenil B taldekoek ere". Jubenilen beste taldeak bigarren igoera lortu du jarraian eta 1. erregionalak "zuzendaritzak espero zuen bezala, 2. erregionalera igotzea lortu du". Haundiren kasuan, "uste baino emaitza hobekak izan dira. Gutxiak espero genuen 2B. mailan iraungo zuenik. Eta ez hori bakarrik, denboraldi erdian

5. eta 6. postuetan ibili da eta taularen erdi aldean amaitu du. Oso pozik gaude. Gainera, Federazio Kopa ere irabazi du". Era berean, Zabalak ez zuen ahaztu entrenatzaile, ordezkari eta zelaiko laguntzaileek egindako lana. Hauentzat guztientzat esker oneko hitzak izan zituen.

4,5 milioko galera

Jon Galarraga eta Joseba Gorosabel zuzendaritzako kideek esan zuten, klubak izandako galera, 4.500.000 pta.koa, "espero baino txikiagoa izan da. Bai sarrerak eta bai gastuak igo egin dira aurten. Lau talde maila altuagoan daude eta, batez ere, 2B mailan egoteak ekarri du gastuen igoera". Haundiren soldatak bere horretan mantendu dira, baina bidaiak, arbitraiek eta isunek igoera nabarmena izan dute. "2Bko arbitraiek oso garestiak dira, txartel hori bakoitzeko 5.000 pta. ordaindu behar izaten dira eta txartel gorriarengatik 7.000 pta. tik gora. Bulegorako garbigailua eta fax berria erosi dira".



Joseba Gorosabel, Jose Ramon Zabala eta Jon Gallarraga pozik daude balantze ekonomikoarekin.

Sarrerei dagokienean, bazkideen kuoten atala igo egin da, "ez bazkide gehiago ditugulako, iaz onartu genuen igoeragatik baizik". Takilan batutako diru kopurua iaizkoa baino handiago da, "partidu bakoitzeko batez beste 60.000 pta. lortu ditugu aurten". Errealaren diru laguntza jaitsi egin da, "2Bko taldeei laguntzarik ematen ez zaielako". Bankuetako aurrezkietatik diru gehiago eskuratu dute aurten, "inbertsio fondoetan daukagu hainbat diru eta 'boltsa'k urte

ona izan duenez, guk ere interes gehiago jaso ditugu". Azkenik, Antena 3 telebista kateak 3 milioi pta. emango dio klubari 2B mailako talde guztiek irudi eskubideak kate honi saltzea erabaki baitzuten. "Dena den, kopuru hau ko-bratzeke dago".

Zuzendaritzakoen helburua gastuak 28 milioitik beharakoak izatea zen "eta helburu horren azpitik ibili gara. Poztekoa da". Klubaren patrimonioa gaur egun, 39.896.000 pta.koa da.

97/98ko balantze ekonomikoa

Gastuak		Sarrerak	
Haundiren soldatak	6.825.000	Bazkide kuotak	6.775.000
Beste soldatak	2.341.000	Errealaren diru laguntza	833.700
Haundiren primak	3.171.000	Takilak	1.599.400
1. erregionaleko gastuak	341.450	Urdaiazpiko eta ardoen errifak	916.400
Taldeen bidaiak	3.472.001	Gabonetako errifak	1.443.169
Haundiko jokalarien bidaiak	2.234.830	Herri Irratiko errifak	426.600
Arbitraiak	4.068.843	Publizitatea	1.726.775
Federazio gastuak	1.284.820	Bankuko aurrezkien interesak	4.392.186
Txartelak eta isunak	943.535	S. Bartolomeetako txapelketa	84.600
Farmazia eta errehabilitazioa	443.262	Antena 3eko irudi eskubideak	3.000.000
Kirol materiala	731.533	Federazioko laguntza	1.139.406
Bestelako gastuak	886.686	Bestelako sarrerak	775.000
Ofizinako inbertsioak	99.138	Patronatuko laguntza	320.625
Ura, telefonoa eta argia	393.280	Guztira	23.432.861 (Iaz 19.671.711)
Errifetako ardo eta urdai-azpikoak	144.584		
Oroigarri eta garaikurrak	81.470		
Ofizinako gastuak	304.325		
Garbiketa	123.998		
Guztira	27.890.755 (Iaz 22.719.612)		
Defizita: - 4.457.894 (Iaz -3.047.901)			

12 pelikula emango ditu Ongarrik aire libreko zinean

Gaur (uztailak 3) hasi eta abuztuaren 2ra arte luzatuko da

Herriko Antzokiko zinea amaitzeaz bat Ongarri Zine Klubak Udal Kultura Sailaren laguntzaz antolatzen duen aire libreko zinea hasiko da. Gaur, hilak 3, lehen pelikula emango da Plaza Handian. Uztaileko eta abuztuaren lehen astebururako 12 emanaldi prestatu ditu Ongarrik. Honez gain, San Bartolome jaietan bi emanaldi izango dira.

Uztaileko bost asteburuetan eta abuztuaren lehenengoan izango dira zine emanaldiak. Asteburu bakoitzeko bi emanaldi prestatu dituzte. Dena dela, egunen batean euria egingo balu, hurrengo egunera atzeratuko litzateke emanaldia. Ongarrikoek azaldu bezala, “ostiraletan jende guztiak ikusteko moduko filmeak eskainiko ditugu eta larunbatetan haurrei zuzendutakoak”. Filmeak Elgoibarraren estreinatu gabekoak dira eta une honetan beste herrietako antzokietan ematen ari dira. Aurreko urteetan bezala, antolatutako filmeetariko bat euskaraz izango da (hilaren 11koa). “Euskal Herrian egindako marrazki bizidunen produkzioa da, ‘Megassonics’, Iñaki Madariagarena, ordenadorea egina hiru dimentsiotan”.

9 urtez zinea Plazan

Aurten 9. edizioa beteko du aire libreko zineak. Iaz Udal Kultura Sailarekin adostutako hiru urterako hitzarmenari esker, Ongarrik 1.600.000 pta.ko laguntza jasotzen du



zine kluba eta aire libreko zinea prestatzeko. **Ikuslegoa mantenduz**

Aire libreko zinera joaten den ikuslego kopuruaren batez bestekoa 700 lagunekoa da saio bakoitzeko. “Lehendabiziko urteetan 1.000 ikusleraino iritsi ginen baina gero, kopurua beherantz joan zen, 700 inguruan mantentzen delarik”. Iaz, esaterako, saio guztietan 15.000 lagun izan ziren.

Bestetik, Ongarrikoak zenbait pertsonaren jarrera dela-eta kexu dira. “Jendeak gauzak jaurtitzen ditu pantailara eta inoiz apurtu ere egin izan da. Gainera, emanaldien amaieran Plaza zakarrez beteta geratzen da. Beharrezkoa deritzogu jarrera aldatzeari”.

AIRE LIBREKO ZINEA

UZTAILA

3, ostirala

22:30 Mercury Rising

Iraupena: 2h

4, larunbata

22:30 Un ratoncito duro de roer

Iraupena: 1h 45m.

10, ostirala

22:30 Dark City

Iraupena: 1h 45m.

11, larunbata

22:30 Megassonics

Marrazki bizidunak euskaraz

Iraupena: 1h 30m.

17, ostirala

22:30 Hard rain

Iraupena: 1h 30m.

18, larunbata

22:30 Flubber y el profesor chiflado

Iraupena: 1h 30m.

25, larunbata

22:30 El desafío

Iraupena: 2h

26, igandea

22:30 Anastasia

Iraupena: 1h 30m.

30, osteguna

22:30 Scream 2

Iraupena: 2h

31, ostirala

22:30 Starship troopers

Iraupena: 2h

ABUZTUA

1, larunbata

22:30 Guerreros de la virtud

Iraupena: 1h 40m.

2, igandea

22:30 Kudun

2h 15m.

Istorio harrigarria

Goz batean atxilotu egin dute Josef K. Jaiki orduko zain ditu ezagutzen ez dituen gizon batzuk eta laister bere aurkako prozesua hasiko dela jakinarazten diote. Hortik aurrera liburuko pertsonaia nagusia abokatu baten bila hasi beharko da bere burua defendatzeko.

Horrelako hasiera du Franz Kafkaren “Prozesua” eleberriak. Gizakiaren angustia hobekien deskribatu zuen idazle txekiar-judu-alemaniarrek beste behin bere unibertsoa garamatza orri hauetan zehar. Eta bere beste lan batzuetan bezala harritu egingo gaitu bere kontakizunak.


Eleberri honetako zenbait kapitulu osatu gabe utzi zituen Kafkak baina hala eta guztiz ere liburua bere osotasunean inolako arazorik gabe irakurtzen da. Gainera, Elkarlanean argitaletxeak plazaraturiko lan honek, literaturaren historian hain berezia eta bakarra izan den egileak ezabatutako pasarteak ere biltzen ditu bukaeran, beraz, bere testu osoa dago jasota. Liburu honetan daukagu halaber, beste edizio batzuetan ipuin solte gisa aurki daitekeen “Legearen aurrean” pasarteak. Azken finean, munduko literaturan klasiko bat dena euskaraz irakurri eta dastatzeko aukera dugu.

Ion Eugi

Edu Arrilagak 'Herri baten argia' argazki liburua kaleratu berri du

Anjel Lertxundi idazleak elgoibartarraren lana goraiatzan du hitzaurrean

Bartzelonako Focal argitaletxeak Eduardo Arrillaga argazkilarik elgoibartarraren 'Herri baten argia' argazki bilduma kaleratu du 'Asombra' izenpean. Dagoeneko elgoibartar askorentzat ezagunak dira bilduma honetako zenbait argazki, iazko San Bartolome jaietan egon baitziren ikusgai Kultur Etxean. Ia denak Elgoibarko baserrietan ateratakoak dira; baserriaren bizimodua, baserriko lanak etab. argi-itzalen bidez ederki isladatzen direlarik. Anjel Lertxundi idazle oriotarrak liburuaran hitzaurrea egin du eta, hitz gutxitan, Arrillagaren argazkien 'magia'k nola erakarri zuen adierazten du.



1966an jaio zen elgoibartar honek sari ugari irabazi ditu (92an Sustatu lehiaketako 3. saria, Sustatu 93ko 1. saria, 94an Fotogramaprix-eko akzesita, 97ko Imajina Ezazu Euskadi lehiaketako 3. saria,...) eta The Independent, DV, El Periodico, eta beste zenbait komunikabideetan argitaratu dituzte bere argazkiak.

Focal argitaletxeako arduraduna Ongarri Argazki taldeko Jesus Mari Sarasuaren bitartez ezagutu zuen. "Desde mi ventana erakusketa Elgoibarren egin zenean, Sarasuak argitaletxeako arduraduna gonbidatu zuen eta baserriekin egiten ari nintzen lana erakusteko esan zidan. Izugarri gustatu zitzaion". Anjel Lertxundik hitzaurrea idaztea ere Sarasuari esker lortu du Eduk. "Ongarrik oso izen ona dauka hemendik kanpo eta Sarasuak jende ugari ezagutzen du, berari esker ari naiz lortzen nire lana kanpoan ezagutaraztea". Bilduman agertzen diren 8-9 argazki berriak dira, "etengabe ari naiz argazki berriak egiten, txundituta nago baserriekin. Hasieran uste nuen nire lanak ez zuela estimazio handirik izango Euskal Herritik kanpo, lantzen dudana gaierengatik batez ere. Baina oker nongoen. Oso harrera ona izan du". Eduk ezin zuen imajinatu baserriaren munduak zenbat aukera eman ditzakeen euren bizimodua sakon ezagutzeko erabakia hartu zuen arte. "Askotan atzerrira joaten gara exotismoa bilatzeko nahiak bultzatuta. Orain badakit baserriak ere oso exotikoak izan daitezkeela, eta gure inguruan daukagun mundu batek aukera handiak eskain diezazkiokeela argazkilarik bati".

Focal argitaletxeak urtean sei liburuskara ateratzen ditu hainbat argazkilariren lanarekin. Aurten Edu Arrillagaren 'Herri baten argia' bilduma aukeratu dute sei liburuskara horietako bat egiteko. "Argazkilarik baten lana liburu batean argitaratzea dagoen gauzarik zailenetakoa da", adierazi digu Edu Arrillagak. "Zuk egiten duzun lanean erreparatzea ez da erraza izaten, are gutxiago argazkilaritza bezalako lanbide batean, oso profesional onak baitaude, izen handikoak".

Estimazio handia izan zuen bertso afariak San Pedroko jaietan

Joan den zapatutik astelehenera bitartean ospatu zituzten San Pedro auzokoek zaindariaren omenezko jaiak. Zapatuan auzoko hurrek ederki pasatu zuten poni eta zezentxoekin. Gauean bertso afaria izan zen Egaña, Irazu eta Oihane Enbeitarekin eta 105 bat lagun elkartu ziren. Bolo tiraldiak ere jokatu ziren eta Xabier Loiola 'Armaxio'k irabazi zuen. Domekan jokatu zen pilota partiduan San Pedroko bikotea,



Javier Osoro eta Xabier Loiola, San Migeleko Fernando eta Unai Loiolari nagusitu zitzaion. Idi dema probetan Elorrioko Ariantza izan zen irabazlea. Azkenik, astelehenean, ekainak 29, San Pedro Eguna ospatu zuten ohiko prozesio eta ondorengo mezarekin. Jaiei amaiera emateko, 20 lagun inguru elkartu ziren San Pedroko jatetxean izan zen bazkarian, umore eta giro ezin hobean arratsalde ederra pasatu zutelarik.

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak 943 461111
 Txanda hartzeko . . . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . . . 943740385
 D.YA (anbulantzia) . . . 943 464622
 Gurutze Gorria 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . . . 943 756264
 Odol Emaileak 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 740442
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . . . 943 744415
 Kultura Zerbitzua 943 742158
 Mendaroko Udala 943 756100
 Ongizate zerbitzua 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 943 740296
 Zaharren Biltokia 943 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco 943 74 40 73
 El Correo Español 943 74 10 82
 Egin 943 10 84 21
 Zazpiki irratia 943 74 34 74

3

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren **BILERA**
 Gaztetxean
19:30 KALE ANTZERKIA
 Ekekei eta Durangoko Institutuko Antzerki Taldearekin
 Madalatik Plazara bitartean
 Antolatzailea:
 Euskal Presoak
 Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataforma
20:00 ARGAZKI ERAKUSKETA
 Gaia: Trikitiaren mundua eta 'Gelatxo'tarrak
 Kultur Etxean
 Antolatzaileak:
 Ongarri A. T.,
 Trikiti Elkarte eta
 Haritz D. T.
 Hilaren 12ra arte
22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Mercury rising"
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba
22:30 ANTZERKIA
 Antzeztaldea: Lakrikun
 Antzezlana:
 Zorioneko oporrak!
 Herriko Antzokian
 Antolatzailea:
 Elgoibarko Izarra
23:00 KUBANAKHANen **SAIOA**
 Gaztetxean

4

larunbata

12:00 BERTSO eta DANTZA SAIOA
 Ziarda eta Meabe bertsolariekin eta Haritz Dantzari Taldearekin
 Plaza Handian
13:00 GIZA KATEA
 Irteera Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Euskal Presoak
 Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataforma
22:30 MUSIKA JAIALDIA
 Gaztetxean
 Antolatzailea:
 Euskal Presoak
 Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataforma
22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Un ratoncito duro de roer"
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba

5

igandea

7:30 BAXE NAFARROAra MENDI **IRTEERA**
 Autobusa Plaza Handitik
 Antolatzailea:
 Morkaiko M. E.
TRIKITILARI EGUNA
11:00 KALEJIRA TRIKITILARIEKIN
12:30 MEZA PARROKIAN
13:00 PEDRO SODUPeri **OMENALDIA**
 Plaza Handian
14:30 BAZKARI HERRIKOIA
 Kiroldegian
18:00 ERROMERIA
 Plaza Handian
 Antolatzaileak:
 Ongarri A. T.,
 Trikiti Elkarte eta
 Haritz D. T.

10

ostirala

19:00 GAZTE ASANBLADAren **BILERA**
 Gaztetxean
22:30 AIRE LIBREKO ZINEA
 "Dark city"
 Plaza Handian
 Antolatzailea:
 Ongarri Zine Kluba

AIRE LIBREKO ZINEA



Zuzendaria: Harold Becker.
Antzezleak: Bruce Willis, Alec Baldwin, Miko Hughes.

Mercury Rising

Art Jeffries FBIko polizia da baina operazio sekretu batean porrot egin zuenez garrantzi gutxiko kasuak bakarrik ematen dizkiote. Egun batean hilketa bat ikertzeko agintzen diote. Bikote bat hil dute eta hauen semea desagertu egin da. Jeffries hilketa gertatu den lekura doa eta umea topatzen du, erabat ikaratuta eta hitz egiteko ahalmena galdu duelarik. Umea arriskuan dagoen susmoa du poliziak.



Lakrikun (Azpeitia)

Antzezlanak:

Zorioneko oporrak!

Eguna: uztailak 3

(ostirala)

Ordua: 22:30

Herriko Antzokian



Zorioneko oporrak!

Azkenean iritsi dira horrenbeste itxaron ditugun egunak! Hondartzara joan eta eguzkia lasai hartu, nahiz eta bizkarra erre eta lo egin ezinik egon. Toki ederrak ikusi, bidean kartera lapurtuko badizute ere. Jende be-

rria ezagutu, zure senarrak norbaitekin ligatuko du,...

Urte osoan lan eta lan pasatu ondoren, hainbeste-ko estimazioa duten oporren inguruko komedia aurkeztuko dute Lakrikun azpeitiarrek.

● Kale antzerkia, giza katea eta musika jaialdia

‘Euskal Presoak Euskalerriratzearen Aldeko Herri Plataforma’k antolatuta, gaur, hilak 3, kale antzerkia izango da arratsaldeko 19:30ean hasita, Elgoibarko Ekekei eta Durangoko Institutuko Antzerki Taldearen eskutik. Elgoibarko Ekekei taldeko kideek ‘Hiltegia’ obra antzeztuko dute Madalan hasi eta Plazara bitartean. Bertan Durangoko Institutuko taldeak beste antzezan bat aurkeztuko du. Larunbatean, hilak 4, eguerdiko 12:00etan bertso saioa izango da Plaza Handian Ziarda eta German Meabebasterretxearekin. Jarraian, Haritz Dantzari Taldekoek dantza egingo dute. Eguerdiko 13:00etan giza katea egingo da eta gaueko 22:30erako, berriz, musika jaialdia antolatu da Gaztetxean.

● Baxe Nafarroara mendi irteera

Morkaikok Baxe Nafarroako Bidarrai bailarara irteera antolatu du domekarako, hilak 5. Irubelakaskoa mendi gailurrera igotzeko asmoa dute, bertan bazkaldu eta arratsaldeko 18:00ak aldera Elgoibarrera itzuli. Bidaia autobusez egingo dute eta goizeko 7:30ean irtengo dira Plaza Handitik.

● Domekan, hilak 5, Gelatxotarrei omenaldia

Haritz Dantzari Taldeak eta Euskal Herriko Trikitilari Elkarteak antolatuta, domekan, hilak 5, Trikitilari Eguna ospatuko da. Egun honetan ‘Gelatxo’ tarrak omenduko dituzte. Goizeko 11:00etan kalejira egingo dute Euskal Herri osotik etorritako 400 trikitilariak. 12:30ean meza

izango da Parrokian eta ondoren, Pedro Soduperi omenaldia hasiko da Plazan. Eguerdiko 14:30ean, bazkari herrikoia izango da Kiroldegian eta 800 lagunetik gora elkartuko dira. Arratsaldeko 18:00etan, erromeria hasiko da Plaza Handian trikitilari hauen partaidetzarekin: *Tapia eta Leturia, Maixa eta Itziar, Alaitz eta Maider, Gozategi, Etzakit, Furunda, Imuntzo eta Beloki, Oihane eta Ene-*

ritz, Zabale anaiak, Herriko Dultzaineroak, Udal Txistulari Taldea, Inazio Bereziartua Musikeskolako dantza ikasleak eta Haritz Dantzari Taldea.

Liburua eta argazki erakusketa

Gelatxotarren historia oparoa biltzen duen liburua kaleratu berri dute Trikitilari Elkarteak eta Ongarri Argazki Taldeak. ‘Gelatxo’ tarreri buruzko material grafiko polita bildu zutela ikusita, Ongarri Trikitilari Elkarteari argazkien liburua argitaratzeko proposamena luzatu zitzaion. Liburuan

‘Gelatxo’ tarren historia jasotzen da. Euskaraz dago idatzia eta laburpenak ditu gaztelaniaz eta ingelesez. Liburudenetan dago salgai 1.000 pta.n. Gaur, hilak 3, Trikitilari Elkarteak antolatutako argazki erakusketa inauguratuko da 20:00etan Kultur Etxean. Musika tresnek eta trikitilariaren argazkiek osatzen dute erakusketa. Hilaren 12ra arte egongo da zabalik.



Zuzendaria: Gore Verbinski
Antzezleak: Nathan Lane, Lee Evans, Christopher Walken.

Un ratoncito duro de roer

Bi anaiak hil berri den aitaren fabrika eta etxe zahar bat jasotzen dute herentzian. Fabrika ez dutela salduko agintzen diote aitari hil aurretik. Baina bi anaiak zorrak besterik ez dituztela heredatu konaturatzen dira. Etxea saltzeko asmotan daudenean, balio arkitektoniko handia izan dezakeela jakiten dute eta etxea konpontzen hasiko dira.

T R A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
4	Yudego	Yudego
5	Yudego	Yudego
6	Zabaleta	Zabaleta
7	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)
8	Escala	Escala
9	Bidasolo	Bidasolo
10	Etxeberria	Etxeberria (Errosario kalean)

ESCALA: Rekalde, 1

Soraluze. Tel: 75 16 38

ZABALETA: Kalebarren, 9

Soraluze. Tel: 75 13 84

OKINDEGIA

5 igandea Doña Mercedes

OHARRA: Merkatu Txikirako agurrak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdia izango

Lana

◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ CNC fresadoran lan egiteko pertsona behar da. 1. mailako ofiziala edo esperientziaduna. Euskaraz hitz egiten dakiena. ☎ 943 74 12 97/ 74 06 64
- ◆ Neska gaztea behar da tabernarako zapatuetan eta abuztuko oporretan lan egiteko. Ogitartekoak egiten aditua. ☎ 943 74 37 71
- ◆ Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. ☎ 943 74 01 80
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egin edo/eta umeak zein zaharrak zaintzeko. ☎ 943 74 21 88
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da uztail eta abuztuan haurrak zaintzeko. ☎ 943 74 17 61 (Miriam)
- ◆ Uztail-abuztuan lan egingo nuke haurrak zaintzen edo tabernan. ☎ 943 74 43 16 (Marimar)
- ◆ Barne Merkataritza titulatu eskaintzen da dendan lan egiteko Erma, Eibar edo Elgoibarren. ☎ 943 74 10 09

Etxebizitzak

- ◆ Laredon, hondartzan ertzean dauden apartamentua alokatzen dut. ☎ 943 79 52 80
- ◆ Jakan (Membrilleras), apartamentua salgai: bi gela, garajea eta trasteroa. ☎ 943 74 20 31
- ◆ Benidorm-eko Levanteko hondartzaren lehen ilaran apartamentua alokatzen da. ☎ 943 74 20 31
- ◆ Etxea salgai Santa Ana kalean. Erdigunean. 2. pisua, ganbara eta igogailuarekin. ☎ 943 74 03 83/ 74 18 34
- ◆ Etxea salgai Urasandin. 90 m² ditu, sukaldia, egongela, 3 logela, bi komun, 3 terrazatxo eta ganbara. Bista ederra, eguzkitsua eta oso egoera onean. ☎ 943 75 52 15
- ◆ San Bartolome 4an pisua daukat alokatzeko. Azkenengo solairuan. ☎ 943 74 21 15
- ◆ Abuzturako pisua daukat alokatzeko Zumaiain. Guztiz jantzita. ☎ 953 86 12 24
- ◆ Etxea salgai Soruluzen. 62 m², eguzkitsua, egoera onean eta merkea. ☎ 943 12 18 20
- ◆ Etxe bat alokatzen dut Ubitarte plazan. ☎ 943 74 01 59

Bestelakoak

- ◆ Urrezko pultsera bat galdu dut. Norbaitek topatu badu dei dezala ☎ 943 74 41 28 telefonora (gauetz).
- ◆ Haur Eskolan (Arregitorre 4) perikito urdin bat agertu zen ekainaren 30ean. Galdu duenak dei dezala ☎ 943 74 21 41 zenbakira.
- ◆ Bi hilabeteko Cocker arrazako txakur kumeak salgai. ☎ 943 75 60 25
- ◆ Bi hilabeteko katu pertsak saltzen ditut. ☎ 943 74 04 26
- ◆ Linterna txiki bat galdu nuen ekainaren 26an, ostirala. ☎ 943 74 33 39
- ◆ Kalamua kaleko 2 zenbakian lokal komertziala saltzen da. ☎ 943 74 09 79 (19:00-21:00)
- ◆ Bi txakurkume oparitzen ditut, husky eta ehiza txakurren nahasketak dira. ☎ 943 74 29 47
- ◆ Astelehenean urrezko pultsera galdu nuen Urasandi inguruan. ☎ 943 74 31 07
- ◆ Cáritatesek hozkailua, garbigailua eta sukaldia behar ditu. ☎ 943 74 15 09/ 74 12 57
- ◆ Zilarrezko kate bat topatu nuen igandean Urasandiko parkean. Udaltzaingoa lagatu. ☎ 943 74 15 09/ 74 12 57

Salerosketak

◆ SALDU ◆

- ◆ Citroen AX GT, SS AF saltzen dut. ☎ 943 74 20 32
- ◆ SS-HK matrikuladun Seat Marbella kotxea salgai. Egoera onean. Prezioa: 230.000 pta. ☎ 943 74 11 29
- ◆ Kitarra espainiarra saltzen dut. Berria, estrenatu gabe. ☎ 943 74 17 01 (Asier)
- ◆ Peugeot 309 diesela, SRD, SS-AD salgai. Egoera oso onean. Estrak eta garantia. ☎ 943 74 11 87
- ◆ Motorra salgai. Onix 2 markakoa. 1.000 km. ditu. Ondo zainduta. ☎ 943 74 29 32
- ◆ Garbigailua saltzen dut. Fagor etxekoa. Prezioa hitz egitekotan. ☎ 943 74 39 75 (Arrate)
- ◆ Mendiko bizikleta berria salgai. Orbea averange, eskurik gabe (alhivio). ☎ 74 39 53
- ◆ Arropak gordetzeko 2 metroko armarua salgai ispluekin eta kaxoekin. Komoda ere bai. ☎ 943 74 39 63 (Alicia)

Partikularrak

- ◆ Abuztuko azken hamabostaldirako matematikako, euskarako, geografiko eta, ahal bada, latineko klase partikularrak emateko irakaslea behar dut. ☎ 943 74 38 49
- ◆ Frantseseko klase intentsiboak emango ditut uztailean. Oinarrizko maila. ☎ 943 74 04 59 / 19 24 59
- ◆ Fisika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 13 34 (Andoni)
- ◆ Uztailean eta abuztuan marrazketa, fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. ☎ 943 74 36 45 (Miguel. Eguerdiko 13:00etatik 15:00etara)
- ◆ Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ 943 74 07 86

Agurrak

- ◆ San Ferminen bueltan jaio izanak sasoi berezia eman zizuen, antza. 27 urte eta zezenaren aurrean saltaka egiteko prest oraindik. **Olga, Amagoia** eta **Mikel**, zorionak!
- ◆ Zorionak **Jon Lizarralde "Indio"**ri bere urtebetetze egunean Añorgako Otamenditarren partez.
- ◆ Zorionak **Agurtzane Oteizari** uztailaren 2an 16 urte beteko dituelako. Kuadrilakoan partez eta Zumaiaiko Hartzaren partez.



◆ Zorionak **Amaia!** Uztailaren 4an Itziarko elizak bere soinekorik eleganteena jantziko du Javi eta bioi ongi-etorria egiteko. Baina bada oso ondo uler-tzen ez dugun zerbait: elizan sartzerakoan neska-mutilak izango zarete eta irtetzerakoan andra-gizonak. Zer da, ba, barruan egin behar duzue? Bromak lagata, ondo-ondo pasa, bai ezkontza egunean eta baita Grezian ere. Elgoibar-ko Izarrako lagunak.

◆ Salama lecum, **Bob!** Kostauko jatzu Moroan hemengo San Ferminak topatza! Ya te digo. Benga, musukote bat, "**Ray of light**"! La Estrella-koak.



Agurrak



◆ Zorionak **Ander Conderi** ekainaren 30ean 10 urte bete zituelako. Guraso eta anaia Jule-nen partez.



◆ Zorionak **Sonia** eta **Javieri** euren ezkontza egunean. Biharko eguna ahaztezina izan dadila opa dizue familia osoak.




◆ Zorionak **Maitane Carori** hildaren 29an 5 urte beteko dituelako. Amama Rufinaren partez.



◆ Zorionak **Maitaneri** 10 urte bete zituelako ekainaren 30ean. Ahizpa eta familiaren partez.



◆ Zorionak **Natalia Barriadari** hildaren 6an 26 urte beteko dituelako. Guraso, ahizpa eta ilobaren partez.



◆ Zorionak **Neirea Asenjori** uztailaren 26an 8 urte bete zituelako. Nagore eta Aitorren partez.



◆ Zorionak **Neirea Cabori** uztailaren 5ean 2 urte beteko dituelako. Guraso eta Unaiaren partez.



◆ Zorionak **Ainhoa Garitagotziari** bihar, hilak 4, 13 urte beteko dituelako. Gurasoak, Jesus eta Kontxi eta Itsaso, Iosu eta ama-mariaren partez.



Luzaide

KAFETEGIA

JATETXEA

Ospitale parean

Mendarozabal, z/g

Tel: 943 75 51 44/75 61

MENDARO

- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Banketeak
- Enpresentzako jatorduak
- Urtebetetzeak
- Despedidak



zezen-Bide AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



**%10eko deskontua
Gazte Txartelarekin**

MENDARO AUTOAK


Plaza auzoa, z/g MENDARO • Tel: 943 75 50 72

Olaso, 27 ELGOIBAR • Tel: 943 74 02 00

Otaola etorbidea, 27 EIBAR • Tel: 943 70 13 82

Zumalakarregi, 1 Donostia • Tel: 943 31 22 00

40° itzaletan?



Babes zaituzte Hyundai batean.



HYUNDAI-k AIRE EGOKITUA OPARITUKO DIZU HIL AMAIERARA ARTE



Asfalto gainean kiskali aurretik, zator Hyundai etxeko edozein kontse-
zionariotara eta babes zaituzte berotik. Orain, ekipamendu ederraz gain,

Aire Egokitua doan izango duzu. Disfruta ezazu.



Gidatu marka on bat

Accent, Lantra gasolina, Coupé eta Sonata modeloentzako eskaintza. Stock-eko autoentzako eta promozio hasieratik hil honen amaierara artean matrikulatutako autoentzako eskaintza; ezin da beste eskaintza batzuekin bateratu. Hyundai Espainiak eta bere kontseziario sareak elkarrekin egindako promozioa.